

## 5.000 SUPER BAT PUNTUKO 5 SORTA

---

### 1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, **5.000 Super Bat puntuko 5 sorta** zozkatuko ditu.

### 2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoan arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagaririk ordaindu behar.

### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Super Bat kontuaren titularrak diren bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere kanpainako posta elektronikoa jaso eta inprimakia 2018ko abenduaren 19a baino lehen bete badute, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako biztanleentzat, eta 2018ko abenduaren 31 baino lehen, Estatuko gainerako biztanleentzat. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak. Irabazleek salbuetsi egiten dute LABORAL Kutxa sariaz gozatzean izan lezaketan edozein kaltetatik. Zozketan, NAN eta probintzia bakoitzeko sari bakarra emango da. Irabazleak, oparia jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Ez baditu aipaturiko baldintzak betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

### 4.- Zozketa

Zozketa 2019ko urtarrilaren 2an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, zozketan ordezkoi 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun baliouduneko epean, saria ordezkoiarentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

### 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

5.000 Super Bat puntuko 5 sorta.

### 6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren menpe dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

### 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoen. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

### 8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.

